



Getariako Udala

2023IAKU0007

2023ko ekainaren 17ko OSOKO BILKURAREN AGIRIA

ALKATEA

ALBERDI, ARRILLAGA, HARITZ

BERTARATUAK

AZKUE, IRIBAR, MIREN KARMELE
ESTEBAN, PERTUSA, EKAITZ
ETXEBERRIA, ARRUABARRENA, HOSTAIZKA
GEREKA, GOIENETXE, AINITZE
LARRAÑAGA, GARRASTAZU, JAIONE
LOIDI, LEUNDA, ANE
MARTIARENA, MUGERTZA, KARMELE
MIRALLES, OTAMENDI, ENEKO
MUGICA, GARMENDIA, IOSU
URRESTI, MARTINEZ, AITOR

EZ BERTARATUAK

IDAZKARIA

MARIA ZENDEGI ZELAIA

Getarian, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deialdira, 2023ko ekainaren 17a, arratsaldeko 12:00etan, Udalaren batzar osoa biltzen da saioan, goian aipatzen diren zinegotziak, HARITZ ALBERDI ARRILLAGA Alkatearen lehendakaritzapean.

Bertan aurkitzen da Udalaren idazkari kontuhartzailea den MARIA ZENDEGI ZELAIA eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.



Getariako Udala

OSOKO BILKURAREN ERAKETA ETA ALKATEAREN IZENDAPENA

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartu zuen Entitate Lokaleko Antolaketa, Funtzionamendu eta Errejimen Juridikoak, 37. atalean diona betez, 2023ko maiatzak 28ko Hauteskundeetatik sortu behar den Udalbatzar berriaren eraketa eta Alkatearen aukeraketa egiteko bilera deialdiaren proposamena Alkatearen esku uzten da. Beraz, 2023ko maiatzak 28ko hauteskundeetatik eratu behar den Udalbatzarraren eraketa eta Alkatearen hautaketa da ez ohiko Osoko Bilkura honen xedea.

UDALBATZA BERRIAREN ERAKETA ETA ALKATEAREN AUKERAKETA.

Hauteskunde Erregimena arautzen duen, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, 2023ko maiatzaren 28ko hauteskunde egunetik zenbatzen hasitako hogeigarren egun honetan Udalbatza berria eratzeko bilera deialdia egingen da. Bildutako hautatuak, eratuko den Udalbatzako gehiengo osoa izanik, hau da legez eta egitez Udalbatzaren gehiengo osoa direlako, eraketa bilkura baliozkoa da.

ADIN MAHAIA OSATZEA

Beraz, gaur lehendabizi adineko mahaia osatuko dugu. Egintza honetan daudenen arteko zinegotzi gazteenak eta edadetuenak osatzen dute, udaletxeko Idazkariarekin batera. Zinegotzi zaharrenak, mahai honen lehendakaritza izango du. Ondorioz, hautagaien urtebetetze egunen arabera, mahaiaren osaketa hau gertatzen da:

1. **LEHENDAKARIA:** Miren Karmele Azkue Iribar, zinegotzirik zaharrena delako.
2. **MAHAIKIDEA:** Hostaizka Etxeberria Arruabarrena, zinegotzirik gazteena delako.
3. **IDAZKARIA:** Maria Zendegi Zelaia, udalaren Idazkaria delako.

Adineko mahaiak zinegotzien hautatu-egiaztagiriak (kredentzialak) Tokiko Hauteskunde Batzordeak luzatutakoak, aztertuko ditu jarraian. Denak baliozkoak direlakoan onartu egiten dira.

ZINEGOTZIEN KARGU-HARTZEA

Jarraian, udaleko Idazkariak egiaztatzen du zinegotzi guztiek udaleko idazkaritzan egin duela balizko bateraezintasun-arrazoiei eta diru-sarrerak ematen dizkioten jardueri buruzko deklarazioa eta bere ondare-ondasunen gaineko aitortpena, betiere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aurreikusitakoa betez.

Ondoren, 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzkoaren 108.8 artikuluan ezarritakoa betetzeko eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusitako formularekin bat etorritik, izendatuak karguaren betebeharrak leialtasunez beteko dituela eta konstituzioa estatuaren funtsezko arau gisa gorde eta zainduko duela hitz eman beharra du.

KARGUAREN PROMESA



Getariako Udala

Lehendabizi idazkariak Adineko mahaiko lehendakaria den Miren Karmele Azkue Iribarri zina egiteko eskatu dio:

ZINA EGIN edo AGINTZEN duzu zure kontzientzia eta ohorearen izenean, zinegotzi kargu honi dagozkion betebeharrak leialki beteko dituzula erregeari leial izanez, eta konstituzioa bete eta betearaziko duzula estatuaren funtsezko arau gisa?

AZKUE,IRIBAR,MIREN KARMELE

Zin egiten dut zinegotzi karguari.

Jarraian, adineko mahaiko lehendakariak adineko mahaikidea den Hostaizka Etxeberria Arruabarrenari zinea egiteko eskatu dio:

ZINA EGIN edo AGINTZEN duzu zure kontzientzia eta ohorearen izenean, zinegotzi kargu honi dagozkion betebeharrak leialki beteko dituzula erregeari leial izanez, eta konstituzioa bete eta betearaziko duzula estatuaren funtsezko arau gisa?

ETXEBERRIA,ARRUABARRENA,HOSTAIZKA

Zin egiten dut zinegotzi karguari.

Amaitzeko, ordena alfabetikoaren arabera, adineko mahaiak banan-banan zinegotzi guztiei ondorengo zina egin die:

ZINA EGIN edo AGINTZEN duzu zure kontzientzia eta ohorearen izenean, zinegotzi kargu honi dagozkion betebeharrak leialki beteko dituzula erregeari leial izanez, eta konstituzioa bete eta betearaziko duzula estatuaren funtsezko arau gisa?

ALBERDI, ARRILLAGA, HARITZ

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

ESTEBAN,PERTUSA, EKAITZ

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

GEREKA,GOIENETXE, AINITZE

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

LARRAÑAGA,GARRASTAZU, JAIONE

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

LOIDI,LEUNDA, ANE

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

MARTIARENA,MUGERTZA, KARMELE



Getariako Udala

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

MIRALLES,OTAMENDI, ENEKO

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

MUGICA,GARMENDIA,IOSU

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

URRESTI,MARTINEZ,AITOR

Legeak behartuta zin egiten dut zinegotzi karguari.

Aurreko izapideak egin ondoren, zinegotzi kargua hartu duzue guztiok, zorionak eta orain, honenbestez Udalbatza berria guztiz eratuta geratzen da. Jarraian, alkatearen hautaketara joko dugu.

ALKATEAREN HAUTAKETA

Prozedura aipatutako 5/85 Lege Organikoko 196. artikuluan xedatutako orokorra da. Adineko mahaiaren lehendakariak zerrendaburuei hautagaitza mantentzen duten edo baztertzen duten galdetuko die, eta erantzuna hauxe izan delarik:

- Haritz Alberdi Arrillagak **mantendu egiten du.**
- Iosu Mujica Garmendiak **hautagaitza mantendu egiten du.**

Beraz, bi hautagaitza daude.

Bukatzeko, aipatutako 5/85 Lege Organikoko 196. artikuluan xedatutakoari jarraiki, adineko mahaik bozketa nola egin nahi den adieraziko du, eskua jasota edo boza sekretu bidez:

Eskua jasota bozkatzea erabaki da.

Bozketa egindako honako emaitza gertatu da:

- Emandako botoak : **hamaika**
- Baliozko botoak: **hamaika**
- Boto txuriak: **bat ere ez**
- Baliogabekoak: **bat ere ez**

Emandako baliozko botoen arabera honako emaitza gertatzen da:

- Haritz Alberdi Arrillagaren aldeko botoak: **sei (Bilduko zinegotzienak)**
- Iosu MugicaGarmendiaren aldeko botoak: **bost (EAJko zinegotzienak)**



Getariako Udala

Hortaz, zinegotzien kopurua hamaikako izanik eta beraz gehiago osoa, sei botokoa, EH Bilduko Haritz Alberdi Arrillaga lortu dituenaz, Getariako Alkate-Lehendakaria izendatzen da.

JABETZA HARTZEA

Alkate-lehendakariak bileraren Lehendakaritza hartu eta adineko mahaikideei eskerrak ematen dizkie, bukatu berri duen lanagatik.

ZINA EGIN edo AGINTZEN duzu zure kontzientzia eta ohorearen izenean, zinegotzi kargu honi dagozkion betebeharrak leialki beteko dituzula erregeari leial izanez, eta konstituzioa bete eta betearaziko duzula estatuaren funtsezko arau gisa?

Alkateak Legeak behartuta zin egin du zinegotzi karguari.

Alkateak hitza hartu du eta eskerrak eman dizkie bere hautagaitza erabaki zenetik laguntza eta animoak eskaini dieten guztiei eta getariar herritarren alde politikagintzan aritzeko bere gogoaz azaldu du.

Bukatzeko, Alkate berriari eta Udalbatzar berriari fondoan kontaktetako arkeoa eta udal ondasunen eguneratutako inbentarioa agertzen zaizkio, aurreko korporazioko kideen sinadurarekin, Alkate berriak, eta neronek idazkariak, agiri hauek sinatzen ditugularik.

Alkateak bere esker ona azaldu du eta honela bada, bilera honen helburua beteta, amaitzea erabaki zuen, hamabi orduak eta hogeita minutu zirenean eta nik idazkariak gertatutakoa agerian uzten du.

Eta besterik gabe, Alkateak bilera amaitzea erabaki du, arratsaldeko 12:30 direnean.

Sinatzailea:	ALKATEAK HARITZ ALBERDI ARRILLAGA IDAZKARIA MARIA ZENDEGI ZELAIA
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAAA41839.VrpD	